

HARITH AL KHASHALI BAAZ ALDERDI ARABIAZ SOZIALISTAKO BURUA

«Irak ez da mehatxua AEBentzat, guztiz kontrakoa baizik: AEBak ari dira Irak etengabe mehatxatzen eta erasotzen»

J.M.P. | BAGDAD

Baaz Alderdi Arabiar Sozialistako agintaritzak kanpo harremanetarako aukeratutako pertsona da Harith al Khashali. Irakeko alderdi nagusiko ordezkariak Bagdadeko gobernuaren kontrako kanpaina salatu du. Bere ustez, Washington «edozein aitzakia» erabiltzeko prest dago gerra justifikatzeko.

■ **Estatu Batuek Irakeko agintaritzak aldatzeko asmoa agertu dute. Hedabideek Jordaniako monarkia-ri lotutako pertsona bat jartzeko ideia ere plazaratu dute. Badirudi guztia alde aurretik ondo pentsaturik dagoela.**

Iraki buruz mintzatzean, egitasmo diferentek aipatu izan dituzte Washingtonek berak eta komunikabideek. Iraki buruz mintzo direnean, ez dira soilik gure herrialdeko mapa aldatzeari buruz mintzatzen ari; eskualde osoko mapa aldatu nahi dute plan horien bidez.

1916. urtean, Ekialde Hurbilaren banaketa egin zuten britainiarrek eta frantsesek. Orain, berriz, beste banaketa bat egin nahi dute estatubatuarrek eta britainiarrek. Mugak aldatu nahi dituzte, ez soilik Iraken, beste herri arabiar guztietan ere bai. Saudi Arabia ere bi estatu edo gehiagotan aldatzeko egitasmoak agertu dira.

■ **Zure iritziz, zein helburu politiko dago plan horien atzean?**

HELBURUA

«Nazio arabiar osoa ahuldu eta Israel eskualdeko potentzia izatea xede dute AEBek»

MAPA ALDAKETA

«Mapa aldatu nahi dute herri arabiar orotan. Saudi Arabia bitan banatu nahi dute»

Planak hedabideek azaldu dituzte. Horien helburu nagusia Irak eta nazio arabiar osoa gero eta ahulagoa izatea da, hori lortzea. Estatu Batuek nagusitasuna lortu nahi dute eskualde osoan, petrolioia kontrolatzeko eta horren bidez mundua menperatzeko. Israel eskualdean potentzia bakarra izatea nahi dute plan horien bidez, herri palestinarren sufrimendu eta lurren kontura, mundu arabiar osoaren kalterako.

■ **Gerra saihestezina da?**

Guk ez dugu gerrarik nahi. Gerra izango ote den galdetzen duzue kazetariok beti, batzutan konturatu gabe Irak jadanik gerran dagoela, Estatu Batuek eta Erresuma Batuek erasoak eta bonbardaketak egiten ari direla gure herriaren kontra.


Gu Nazio Batuen Erakunde-

rekin lan egiteko prest gaude. NBerekin lan egin dugu. UNSCOM armen kontrolerako lehenengo batzordearekin lan egin genuen eta UNSCOM ia zortzi urtean egon zen Iraken lanean. Hori ez zen posiblea izango gure lankidetzarik izan ez balu.

Estatubatuarrek euren agenda inposatu nahi dute munduan eta edozer egiteko prest daude hori lortzeko. Edozein aitzakia balio die, edozein kontuk, baita arma ikuskatzailak erabiltzeak ere, UNSCOMekin egin zuten bezala. Orain suntsipen handiko armak dauzkagula esaten ari dira, Irakeko Gobernuak arma mota horiek egiteko programa berria martxan jarri duela. Hori ukatzeko asmoz, etortzeko esan genien arma ikuskatzailak.

■ **Irak AEBetako herritarrentzat mehatxua dela dio Washingtongo gobernuak bere kanpaina defendatzeko.**

Logika daukan batek, asmo txarrik ez daukanak, argi ikusten du AEBen jarrera aitzakia hutsa dela, Irak ez dela mehatxua munduarengat, Washingtonek hori sinetsarazi nahi duen arren. Nolaz izango da Irak AEBentzako mehatxua? AEBak ari dira Irak amenaztzen, eta ez soilik amenaztzen. Egunero Iraki erasotzen diote bonben bitartez, hegaldatu ezineko guneen bitartez... Irakiarrak hiltzen ari dira etengabe. Beraiek ari dira Iraki erasotzen, ez alderantziz.



J. SCOTT APPLEWHITE / AP

George Bush AEBetako presidentea eta bere gobernuak Irakeko oposizioa diruz sostengatzen dute, Bagdaden aurka egiteko.

Oposizioa sostengatuz nazioarteko legedia urratzea egotzi die AEBei Bagdadek

Erredakzioa | DONOSTIA

Naji Sabri Irakeko Atzerri ministroak Estatu Batuei egotzi die Bagdaden oposizioari sostengua emanez nazioarteko legedia urratu izana. Sabrik NBEko idazkari nagusi Kofi Annani bidalitako gutun batean adierazi duenez, erbestean bizi diren oposizio taldeek «Irakeko egonkortasuna eta segurtasun politiko eta soziala astintzea dute helburu, baita lurralde batasuna eta independentzia ere». Golkoko Gerra amaitu zenetik, oposizioa diruz lagundu du Washingtonek.

Bestetik, Turkia eta Siriako buruzagiek atzo esan zuten oraindik badagoela gerra eragozteko aukerarik. Turkiako lehen ministro Abdula Gulek, Damaskoz gain, Jordania, Saudi Arabia, Egipto eta Iranera bisita hasi zuten atzo. Adituen arabera, gerra izanez gero herri arabiarren aurrean isolatuta ez geratzeko ahalegina egi-


ten ari da Ankara. Jacques Chirac Frantziako presidentea Libanoko lehen ministro Rafic Haririrekin bildu zen, eta Ekialde Hurbilak ez duela behar «tentsio edo gerra gehigarri» adierazi zuen.

AEBetako presidente George Bush herenegun gerrarako prest zeudela iragarri ostean, berriz, Erresuma Batuek Golkora 20.000 soldadu bidaliko dituela jakinaraziko du datoren astean, *The Daily Telegraph* egunkariak dioenez. Horrez gainera, 7.000 erretserbista mobilizatuko ditu.


UNMOVICeko arma ikuskatzailak lanean jarraitzen dute. Irakeko bigarren hiri handienean, Basoran, nekazaritza eskola bat aztertzen aritu ostean —hegoaldean—, iparraldeko Mossul hirian jarri dute egoitza ikuskatzailak. Bagdadeko iturrien arabera, orain arte 230 gune miatu dituzte, eta ez dute suntsipen handiko armen arrastorik aurkitu.

euskaldunon
Egunkaria


Egun hauetan euskal produktuak oparitu



10 €



15 €



10 €



3,8 €

Zure betiko kioskoan eta liburu dendetan